

Altza



«Plan Komunitarioak fidagarritasuna lortu du»

Udalak Plan Komunitarioa abian jarri zuen Altzan; planak herritarren bizi kalitatea hobetzea du helburu. Marimar Jimenez eta Arantxa Ferrerarekin batera ekimena gidatzen ari den Eli Arrietarekin solasean aritu gara.

Joan den urtean jarri zenuen abian Plan Komunitarioa. Nola definituko zenuke ekimena?

Lehenik eta behin esan beharra dago plana partaidetza esperientzia dela; auzotarren inplikazioaren bitartez, bizi kalitatea hobetzea du helburu. Bestalde, Altzan oso errealitate ezberdinak daude —alde batetik euskaldunak eta bestetik erdaldunak—, eta horien guztien artean kohesioa lortzeko ere jarri da martxan egitasmoa.

Bestelako plangintzarik izan al duzue eredu Altzako egiteko?

Bartzelonako Trinitat Novakoa aintzat hartu dugu. Trini-

tat Nova bederatzi auzo biltzen dituen eremu geografikoa da eta, bertan, herritarren parte hartzean oinarritutako egitasmoa arrakastatsua da.

Zer nolako balantzea egiten duzue lehen hilabete hauetaz?

Balantzea ezinhobea da. Kontuan hartu behar dugu hasieran askok ez zutela ekimena begi onez ikusi. Hala ere, hilabete gutxiren buruan, esparru guztietako 70 elkarte eta profesionalekin jarri gara harremanetan eta Altzako ga-beziekin txosten bat adostu dugu. Hau da, altzatarren artean fidagarritasuna lortu dugu. Txostenaren arabera, besteak beste, altzatarrek oztopo

arkitektonikoak kentzea, elkarreentzako lokal gehiago jartzea eta Osasun Etxeko zerbitzuak zabaltzea nahi dute. Nabarmentzekoa da, bestalde, 2004ko aurrekontu parte-hartzailearen haritik, herritarrek Altzan oztopo arkitektonikoak ezabatzeko proposamena aurkeztu zutela eta Udalak proposamen hori onartu izanak ilusioa piztu duela.

Zeintzuk dira eman beharreko hurrengo urratsak?

Abenduan herritarrez osatutako lan taldea martxan jarri nahi dugu. Alegia, herritarrek beraiek planaren gidaritza har dezaten nahi dugu, diagnosian azaleratutako ga-beziak konpontzeko lanean

has daitezten.

Zein da planaren azken helburua?

Ekintza zehatzen gaitetik, parte hartzea sustatzea nahi du planak; denok badugula zer egin erakutsi nahi du. Gurean ez ezik, leku guztietan bultzatu beharko lukete herritarren partaidetza, horrek Udal eta herritarrak elkarrengandik gertuago egotea ahalbidetzen du eta.

Auzotarren arteko elkarlana da planaren ardatz nagusia. Auditiz-Akularreko egitasmo ika-mikatsuak ez al du arriskuan jarriko elkarlan hori?

Auditiz-Akularri buruz, iritzi ezberdinak jaso ditugu: hasieran aurreikusi baina etxebizitza gutxiago egin litezkeela, gazteentzako etxebizitzak beharrezkoak direla... Agian Altza XXI plataformak Auditiz-Akularren kontra dauden guztiak biltzen dituelako izango da, baina, egia esan, ez dugu muturreko iritzirik jaso.

